

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Aukerakoa
Ikasgaia: Osasun digitala	Eskolen kronograma: 2. lauhilekoa
Kodea: 28262	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Eraldaketa digitala eragin handia izaten ari da osasun-sektorean, eta etorkizunean aldaketa horiek sakonagoak izango direla uste da. Osasun-prozesuen efikazia eta efizientzia hobetzeko asmoz, osasuna sustatu eta haren inguruko hezkuntza emateko ekimen ugari abiarazi dira, pertsona osasuntsuei zuzendutakoak, bai eta gaixotasun kroniko zein akutuen diagnostikoa eta monitorizazioa egiteko xedea dutenak ere. Badirudi osasun-sistemaren jasangarritasunerako gakoetako bat online osasun-zerbitzuen gorakada izango dela, herritarrak autozaintzan ahalduntzearekin batera. Hori dela eta, ezinbestekoa da osasuneko etorkizuneko profesionalai gaitasun digitaletako prestakuntza ematea, osasunaren arloan teknologiek izan duten gorakadaren ondoriozko paradigma-aldaketaren aurrean prest egon daitezen.	ECTS kredituak: 4,5
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Ingelesez irakurmen- eta ulermen-maila ertaina izatea gomendatzen da.	Kurtsoa: 3.Maila

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Irakasgaiaren arduraduna Sergio Yuste Muñoz	945 218287	sergio_yuste001@ehu.eus
Irakasleak Sergio Yuste Muñoz	945 218287	sergio_yuste001@ehu.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Osasun-sistemaren barruan, osasun digitaleko hainbat konponbide identifikatzea, balio erantsia ematen dutenak eta ondo egokitzen direnak osasunaren arloko prebentzio-, sustapen- et manei-jardueretarako eta gure inguruko herritarren bizi-kalitaterako.
- G2. Osasunaren sustapena eta kudeaketa optimizatzeko aukera ematen duten esku-hartzeen bidez landu daitezkeen egoerak aztertzea, hala norbanakoaren mailan nola populazio osoarentzat, egungo lege-esparruaren barruan.
- G3. Konponbide teknologikoek duten garrantziaz eztabaidatzea, online osasun-zerbitzuen eskariaren gorakadaren aurrean eta herritarrak autozaintzan ahalduntzearekin batera, erizaintzaren ikuspegitik.
- G4. Osasun digitaleko proiektu bat diseinatzea, populazio osasuntsuan osasunaren promozioa eta/edo hezkuntza egiteko edo gaixotasun kroniko edo akutuen diagnostikoa eta/edo monitorizazioa egiteko.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Ezagutzak ditu osasun digitala kontzeptuaren inguruan bai eta gure ingurune osasun-sistemetan hori ezartzearen garrantziaren inguruan ere.
- IE2. Osasun-sistemaren eraldaketa digitalaren funtsezko kontzeptuak laburbiltzen ditu efizientzia- eta efikazia-irizpideen arabera.
- IE3. Osasun digitaleko konponbideen bidez landu daitezkeen prozesu asistentzialak multzokatzen ditu, optimizatze eta osasunaren sustapenaren eta kudeaketaren arloko banako zein populazio-mailako beharrei erantzuna emateko.
- IE4. E-osasuneko indarreko lege-esparruaren alderdirik garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.
- IE5. Herritarrak ebidentzian oinarritutako auto-zaintzan ahalduzera bideratutako konponbide teknologikoen ezarpena justifikatzen du.
- IE6. Argudioak ematen ditu osasun digitaleko konponbideen inguruan, erizaintzatik osasun-zerbitzuen goranzko eskariari emandako erantzun gisa.
- IE7. Pertsona osasuntsu edo gaixoentzako osasun digitaleko proiektu baten diseinua sortzea, ildo hauetakoren batean: osasunaren sustapena, osasun-hezkuntza, diagnostikoa edo monitorizazioa.

EDUKIAK

I. UNITATEA: KONTZEPTU OROKORRAK

- 1.1. What is eHealth?
- 1.2. Osasun digitaleko esku-hartzeen sailkapena.
- 1.3. eOsasunaren erabilera Europan.
- 1.4. eOsasunaren inpaktua.

II. UNITATEA: E-OSASUNEN ESKU-HARTZEAK ETA LEGE-ALDERDIAK

- 2.1. eOsasuneko esku-hartzeak.
 - 2.1.1. Teleosasuna
 - 2.1.2. mHealth
 - 2.1.3. Historia kliniko elektronikoa (HKE)
 - 2.1.4. Big Data
 - 2.1.5. eLearning
- 2.2. eOsasunaren lege-esparrua

III. UNITATEA: ERIZAINZAKO ZAINKETEN KALITATEA, EBIDENTZIAN OINARRITUTAKOPRAKTIKA.

- 3.1. Pazientean ardaztutako osasuna. Ahalduntzea eta erabakiak batera hartzea.
- 3.2. eHealth informazio fidagarriaren iturriak.
- 3.3. eOsasuna eta erizaintzaren rola. Kalitatezko zainketak.
- 3.4. Ospe digitala eta irudi profesionala.

IV. UNITATEA: E-OSASUNeko ESKU-HARTZEEN EZARPENA ETA EBALUAZIOA

4.1. Inplementazio-estrategiak.

4.2. Osasun Digitaleko konponbideen monitorizazioa eta ebaluazioa.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK	GELAKO PRAKTIKAK
I	Sergio Yuste Muñoz	45	0	0	0
II			0	0	0
III			0	0	0
IV			0	0	0
TOTAL		45	0	0	0

METODOLOGIA

Online prestakuntza: Irakasgai hau eGela plataforma birtualaren bidez emango da. Bertan, irakasgaiaren erabiliko diren ikasketarako baliabide guztiak topatuko dituzte ikasleek, hainbat formatu digitaletan. Ikasgela birtualean, ikasleek irakaslearen laguntza izango dute. Ikasketa zuzenduko du eta, aldi berean, sortutako zalantza guztiak argitzen ahaleginduko da. Ebaluazio jarraiturako planteatu diren jardueraren guztiek ikaskuntzaren emaitzak lortzen laguntzen dute, bai eta irakasgaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzen ere. Urruneko online ikaskuntzaren metodologia erabiliko denez, ikasleek beren ikaskuntza-prozesua antolatu eta kudeatu beharko dute, gai-unitate bakoitzean aurreikusitako agendaren arabera.

ONLINE LANA (45 ORDUAK)		
Online	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
45	0	0

LAN EZ-PRESENTZIALA (67,5 ORDUAK)		GUZTIRA	
Bakarkako lana	Talde-lana	ECTS	
57,5	10	4,5	
		ORDUAK	112,5

EBALUAZIO-SISTEMA

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduerak ditu:

- TEST MOTAKO PROBA %30
- PRAKTIKAK (ARIKETAK, KASUAK EDO BURUKETAK) %40
- TALDE-LANA (ARAZOAK KONPONTZEA, PROIEKTUAK DISEINATZEA) %30

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE2	Online	- Idatzizko azterketa: testa 10% - Debatea: 10%	%20
G2	IE3, IE4		- Glosarioa: %5 - Idatzizko azterketa: testa %20	%25
G3	IE5, IE6		- Debatea: %10 - Banakako lana: %15	%25
G4	IE7		- Talde-lana: %30	%30

Irakasgaiaren azken kalifikazioa lortzeko ezinbesteko baldintzak dira:

1. Ebaluazio-jarduerak entregatzea eGela plataformaren bidez.
2. eGela plataformaren bidez entregatzea, **ezarritako epean**, irakasgaiaren gai-unitate bakoitzarentzat planteatu diren ebaluazio-jarduerak.
3. Irakasgaia gainditzeko ebaluazio-jarduera guztietan lortu behar da bakoitzaren balioaren %50eko kalifikazioa edo hobea.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote irakasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9asteko epea izango dute irakasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA n argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Etengabeko ebaluazioko jardueraren batean ebaluatuta izan diren ikasleak, aurretik ebaluazio jarraituari formalki uko egin badiote, eskatutako notaren %50ekin gainditu dituzten jardueretan lortutako nota gordeko zaie. %50etik beherako nota lortu duten jarduerak amaierako ebaluazioan errekuperatu ahal izango dira, irakasgaiarentzat ezarritako azterketa-aldian, aurretik gainditu gabeko jarduerarako egindako lanaren antzeko ezaugarriak dituzten eduki batzuen idatzizko laburpen bat eginez.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- TEST MOTAKO PROBA %30
- IDATZIZKO PROBA %25
- LANAK ENTREGATZEA (JARDUERAK, KASUAK EDO ARAZOAK, DEBATEAK) %45

Azken ebaluazioko sistemako ebaluazio probak **bertaratzeko modalitatean** egingo dira, ohiko-deialdi azterketarako ezarritako egunean.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	% KALIFIKAZIO GLOBALA
G1, G2	IE1, IE2, IE3, IE4	Azkeneko proba	- Idatzizko azterketa: test 30% - Idatzizko azterketa: garatzeko 15%	45%
G3	IE5, IE6	Azkeneko proba + Entrega	- Idatzizko azterketa: garatzeko 10% - Lana entregatzea bakarkako lana 15%	25%
G4	IE7	Entrega	- Lana entregatzea bakarkako lana 30%	30%

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2021/2022 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko-deialdian zehaztutakoak ezohiko deialdirako balioko du. Ikasturte akademiko honetako ohiko-deialdian 5 edo nota altuago batekin gainditutako ebaluazio-jardueren notak gordeko dira. Ezohiko azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Ez-ohiko deialdiko azterketara edo azken probetara aurkezten ez bada, edo eskatutako lanak aurkezten ez badira, irakasgaiaren kalifikazioan «Ez aurkeztua» bezala agertuko da.

Era berean, ebaluazio probak bertaratzeko modalitatean egingo dira, ez-ohiko deialdi azterketarako ezarritako egunean. Egun hori bera izango da ikasleari eskatzen zaizkion lan akademikoak emateko muga.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Alvarez RC. The promise of e-Health - a Canadian perspective. *eHealth Int.* 2002;1(1):4. doi: 10.1186/1476-3591-1-4
- * Díaz NC. Manual Consentimiento Informado, Historia Clínica e Instrucciones Previas. Fundación Leucemia y Linfoma 2010. Disponible en: <http://www.leucemiaylinfoma.com/resources/files/9fe38df3-cf39-4181-bdb7-49dd5aaaa2ba.pdf>
- * Eysenbach G. What is e-health? *Journal of Medical Internet Research.* 2001;3(2):1–5. doi: <http://www.jmir.org/2001/2/e20/>
- * Monteagudo JL, García Santesmases P. El Marco de Desarrollo de la e-Salud en España. 2001. Disponible en: <http://gesdoc.isciii.es/gesdoccontroller?action=download&id=24/10/2012-ad0e60aba9>
- * Nagle LM, White P. National Nursing Data Standards Symposium Proceedings. 2018; 1–44. Disponible en: https://www.cihi.ca/sites/default/files/document/nnds_2018_proceedings.pdf
- * Oh H, Rizo C, Enkin M, Jadad A, Powell J, Pagliari C. What is eHealth (3): a systematic review of published definitions. *J Med Internet Res [Internet].* 2005;7(1):e1. doi:10.2196/jmir.7.1.e1
- * Risling T, Martinez J, Young J, Thorp-Froslic N. Evaluating patient empowerment in association with ehealth technology: Scoping review. Vol. 19, *Journal of Medical Internet Research.* 2017; e329. doi:10.2196/jmir.7809
- * Risling, T. Educating the nurses of 2025: Technology trends of the next decade. *Nurse Educ. Pract.* 2017; 22: 89–92. <https://doi.org/10.1016/j.nepr.2016.12.007>

Sakontzeko bibliografia

- * Charlebois M, Salois-Swallow D, Bijnok I, Abdi R, Allen D, Bachner CE, et al. Adopting eHealth Solutions: Implementation Strategies. *RNAO Regist Nurses' Assoc Ontario.* 2017:152. Disponible en: www.RNAO.ca/bpg
- * European Commission. eHealth Action Plan 2012-2020 - Innovative healthcare for the 21st century. COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE COUNCIL, THE EUROPEAN ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS Disponible en: http://ec.europa.eu/information_society/activities/health/policy/ehtask_force/index_en.htm

Interneteko helbideak

- * Innovatemedtec. ehealth - what is ehealth? [Internet]. 2018 [citado el 28 de mayo de 2022]. Disponible en: <https://innovatemedtec.com/digital-health/ehealth>
- * World Health Organisation. Classification of Digital Health Interventions v 1.0. WHO Classif [Internet]. 2018 [citado el 28 de mayo de 2022]. Disponible en: <https://www.who.int/reproductivehealth/publications/mhealth/classification-digital-health-interventions/en/>
- * World Health Organisation. National eHealth Strategy Toolkit Overview. *World Heal Organ Int Telecommun Union [Internet].* 2010 [citado el 28 de mayo de 2022]. Disponible en: www.who.int
- * World Health Organisation. Monitoring and evaluating digital health interventions: a practical guide to conducting research and assessment. [Internet]. 2018 [citado el 28 de mayo de 2022]. Disponible en: <http://apps.who.int/bookorders>.

- * World Health Organisation. Global diffusion of eHealth: Making universal health coverage achievable [Internet]. Report of the third global survey on eHealth. WHO; 2016 [citado 28 de mayo de 2022]. Disponible en: [papers3://publication/uuid/6D2CF35D-81C1-4FEC-8B56-1601403D4BD7](https://publications.paho.org/handle/10768/4417)
- * World Health Organization. eHealth at WHO [Internet]. WHO. 2018 [citado el 28 de mayo de 2022]. Disponible en: <https://www.who.int/ehealth/about/en/>

OHARRAK

Ikastaroaren hasieran ikasleen eskura jarriko dira eGelan irakasgaiarekin lotutako hainbat dokumentu.

TUTORETZAK

Ikasleek irakasleengana joan ahal dira lanaldiaren edozein ordutan jarduera akademikoarekin lotutako edozein zalantza argitzeko. Tutoretzen ordutegia hau da: ostegunak, 15:00etatik 17:00etara.

Lanaldi osoko irakasleekin tutoretzak egiteko haien ohartarazi behar zaie: zuzenean, gelan, telefonoz edo posta elektronikoko baten bidez hitzordua hartuz.

Irakaskuntzarekin unean-unean kolaboratzen duten irakasleekin tutoretzak izateko, horiek eskolan ez daudenez, posta elektronikoko bidez kudeatu beharko dira irakaskuntza-gida honetan jasotako ikasgaiaren arduradunaren bidez. Horrek hitzordua kudeatuko du inplikaturiko irakasleekin.